

SEKTORE MAHAIAREN 2015/05/26ko BILERAREN LABURPENA

Gaurko bileran 2014-2015 EPEa izan da gai bakarra; eta, zehazkiago esanda, Berariazko Oinarrien eta Oinarri Orokorren alderdi teknikoak aztertu dira. Osakidetza hasi da erakusten oinarriari egindako aldaketak. Horietako baten bat berria da, baina besteak lehengo berberak dira. Ondo azpimarratu dute aldaketak sindikatuen eskariz egin direla.

- Desgaitasunak dituzten pertsonentzako erreserban aldaketak sartu dituzte idazketan. Idazketa dagoen moduan plazak ez dira oraindik benetan erreserbatzen, ELAk eskatzen zuen bezala.
- Azterketaren galderei emandako erantzun okerrengatik zegoen zigorra kendu da. ELAk eskatu zuen hala egiteko.
- Kredituen eta orduen arteko baliokidetza ezartzea:
 - ECTS 1 = 25 prestakuntza-ordu.
 - Kreditu arrunt 1 = 10 prestakuntza-ordu.
 - Ez badago krediturik, ezta prestakuntza-ordurik ere, Epaimahaiaren iritziz egingo da.
 - Urtean kontuan har daitezkeen prestakuntza-orduen muga 500 ordukoa da.
- Larrialdietako fakultatiboen kategorian azterketa IVA Pek jarriko du, eta ez Epaimahaiak. ELAk beste neurri batzuk ere eskatu zituen, kategoria txikietan epaimahaien objektibotasuna ziurtatzearen, baina ez dituzte kontuan hartu.

Aldaketen irakurketa azkar hori egin ondoren:

ELA

Berriro gogoratu dugu, aldaketak hain modu azkarrean erakutsita, ezinezkoa dela behar bezala balioestea. Aurrekoetan bezala eskatu dugu dokumentazioa aldez aurretik aurkeztea, bilerara ekarpenak eta alegazioak ekarri ahal izateko.

EPEaren gaineko eztabaida ezin da teknikoa izan, eztabaida-gaia prozesu horien benetako arrazoia izan beharko zen: plantillari egonkortasuna ematea, behin-behinekotasunaren tasa jaistea, lan-karga handiak birbanatzea, plantilla funtzional osoa kontuan hartuz, eta ez bakarrik egitura-plazak.

Halaber, lanpostuak hautatzeko orduan, lanpostu huts guztiak eskaintzeko eskatu dugu, eta ez bakarrik Osakidetza finkatzen duen antzintasun-betekizuna betetzen dutenak.

3-HE eta 4-HE merezimenduak 1-HE eta 2-HE gainetik proportzioan kontuan hartzeko eskatu

dugu, zerbitzu hobeia eskaintzeko ahalegin hori egin dutenak saritzearren.

Izenemate-tasak kentzeko eskatu dugu.

Gainera, pertsonal fakultatiboen berariazko oinarrietatik lanbide-garapeneko mailak kentzeko eskatu dugu, lanbide-garapena egiaztatzerik izan ez duten hautagaiak diskriminatzen zirelakoan.

Administrari-laguntzaileen berariazko oinarrietan gehiago zehaztu beharko zen zein ikastaro hartuko den kontuan kategoria horretarako. Eta beste horrenbeste etengabeko prestakuntza barematzen den gainerako kategorietan.

Osakidetzan eta euskal administrazioetan harturiko lanbide-esperientzia gainerako administrazioetan harturikoa baino gehiago barematzeko eskatu dugu.

Eta azkenik galdetu dugu ea bilera horretan, aurrekoetan ere eskatu dugun bezala, eztabaidatu ahal izango ditugu hurrengo puntuak:

- Eskaini beharreko plaza-kopurua.
- Nola jokatu den Osakidetzaaren behin-behinekotasunaren tasa jaisteko eta plantilla finkatzeko.
- Eta ea behingoz aurkeztuko dizkiguten Osakidetzaaren egitura-plantilla eta plantilla funtzionala.

Gainerako sindikatuek ere, beren alegazio eta iritzien bidez, eskatu dute aho batez plaza-kopurua eztabaidatzea eta Osakidetzaaren plantilla funtzionala eta estrukturala aurkeztea. Orduan Osakidetzaaren ordezkariak hasi dira itzulinguruka, hurrengo bilera batean aztertu behar diren prozesuak aipatuz. Estutu egin ditugu ea guk eskaturiko eztabaida bateratua egingo den ala ez galdetuz. Plaza-kopuruaz eztabaidatzeari uko egin diotenez, eta informazio gehiago eman nahi ez digutenez, sindikatu guztiok alde egin dugu negoziazio-mahaitik (LABek aurreko bileran alde egin zuen, eta orain mahaira itzultzea erabaki du).